

**ALDEZ AURREKO KONTSULTA
PUBLIKOAREN AZKEN TXOSTENA,
ARRAZAKERIAREN ETA XENOFIARIAREN
AURKAKO ARRETARAKO ZERBITZUA
EZARTZEKO PROGRAMA ESPERIMENTALA
ONESTEN DUEN FORU AGINDUAREN**

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikulua xedatzen duenez, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatzen ahalko da lege aurreproiektuetarako, eta ezinbestean sustatuko da erregelamendu proiektuetarako, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten arauaren eraginpean gerta litezkeen pertsonak eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez zein arazo konpondu nahi diren.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Manu hori betez, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Arreta Zerbitzua ezartzeko programa esperimentalaren onestean duen foru agindua prestatzen hasteko aurretiko kontsulta webgune honetan argitaratu da:

<https://participa.navarra.es/processes/consulta-publica-previa-de-orden-foral-racismo-xenofobia?locale=eu>

Aldez aurreko kontsultan herritarrek aukera izan dute parte hartzeko; zehazki, iradokizunak aurkez zitezkeen 2022ko apirilaren 19tik maiatzaren 10era bitartean. Alegazioak aurkezteko bidea posta elektronikoa izan da, helbidera honetara idatziz: migraciones.convivencia@navarra.es

Jendaurreko epe hori igaro da eta ez da proposamenik jaso.

Horren ondorioz, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Arreta Zerbitzua ezartzeko programa esperimentalala onesten duen Foru Aginduaren proiektuaren testua prestatzeari ekinen zaio

Iruñean, 2022ko maiatzaren 17an. Ayllu-Kulturen arteko Bizikidetzarako eta Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Zerbitzuko zuzendaria, Idoia Saralegui San Sebastián. (Sinadura jatorrizkoan dago)